

5^a EDICIÓN | SECUNDARIA

CONCURSO ESCOLAR

HAZLO VERDE

MISIÓN #SALVEMOSLOSBOSES

CAMBIAR TU MUNDO ESTÁ EN TUS MANOS

UNIDAD DIDÁCTICA 4

**SENTSIBILIZAZIO KANPAINA
BAT SORTZEN DUGU**

AURKIBIDEA

1 GURE SENTSIBILIZAZIO KANPAINA SORTZEN DUGU

1.1 BRAINSTORMING ETA MIND MAPA SORMENEZKO BALIABIDE GISA

2 1. MEZUA PENTSATZEN DUGU

3 2. IRUDIA AUKERATZEN DUGU

4 3. GURE PROPOSAMENA SORTZEN DUGU

1 GURE SENTSIBILIZAZIO KANPAINA SORTZEN DUGU

Sentsibilizazio kanpaina orotan **gaia kontestuan kokatu** beharra dago ikaasleei **proiektuaren garrantzia eta harekin lortu nahi den helburua ulertzen** laguntzeko.

Iradokitutako jarduerak burutu eta gero, oraingoan ikasitakoa ikastetxeko korridoreetan hedatzea eta 15. GJHa ezagutzera ematea tokatzen da, baso-masetako baliabideen jasangarritasunaren garrantzia azpimarratuz.

Ziur ikasgelan ondorio eta hausnarketa ugaritara iritsi zaretela, lan-taldetan ikasleek haien irudimen eta sormena komunitatean basoen eta **kontsumo arduratsuaren** inguruko **identitate jasangarria eta ingurumenezko identitate** bat sustatzeko helburua duen sentsibilizazio kartel bat egiteko aplikatu ahal izango dituzte.

1.1 GIDOIA ETA STORY BOARDA BALIABIDE DIDAKTIKO GISA

Datuak bildu, ikasgelan eztabaidatu eta 15. GJHa ezagutzera emateak duen garrantziaren inguruan hausnartu eta gero, gure sentsibilizazio kanpaina garatzeari ekingo diogu.

Bideo batean garrantzitsua da filmatuko den istorioa, bere helburua eta horretan oinarrituz **istorioaren narrazioa aurretiaz definitzea**.

Lehen pausoa **istorioaren planifikazio bisuala da: Gidoi literarioak** narrazio unitateak sekuentzietan, elkarrizketetan, eskenatokietan eta abarretan deskribatzen ditu.

Bigarren pausoa **istorioa irudi bilakatzea** da: **story-boarda** istorioa pausoz pauso irudikatzeko prozesua da, non kameraren planoak, eskenak eta narrazioaren sekuentziak marraztuak geratuko diren.

Gidoi literarioa eta story-board konbinazioak **filmazioaren planifikazioa** ahalbidetuko du eta istorioak edo bideoak bilbeak mezua eraginkorra izatea egingo duen **sinonimo audiobisual** gisa funtzionatzea bermatuko du.

Oroitu **bideoak ezin duela minutu bateko iraupena gainditu**, garrantzitsua delarik laburra, zehatza eta harrigarria suertatzea.

ZER DA GIDOIA?

Istoriaa irudi bidez kontatzeko, beharrezkoa da denbora eta espazioan antolatzea. Aipatutako informazioaren aukeraketa gidoiaren bidez egiten da. Eskenak kontaktaren sekzio bat dira, non gertaera zehatzak jazotzen diren, eta sekuentziak ideia komun bat jarraitzen duten eskena-taldeak dira. Gidoiak dekoratuak, elkarriketak eta parte hartzen duten pertsonaien akzioak batzen ditu.




ZER DA STORY-BOARDA?

Story-boarda filmaren planifikazio osoa da, grabatuko diren planoen irudiekin eta soinuari, argiari, kameraren planoari eta abarri buruzko jarraibide guztiekin. Story-boardak espazioak eta denborak pertsonaiekin duten harremana eta harreman hori koherentziaz adierazteko duen modua jasotzen ditu.



IKASGELAN NOLA APLIKATU?

Istoriaa definitu eta gero antola itzazue zuen lan-taldeak, talde bat gidoiaz arduratuko delarik, beste bat elkarriketetaz, beste bat janzkeraz, lokalizazioetaz, eskenetako dekorazioaz, etab.





Mezua igorleak hartzaileari transmititzen dion informazioa materializatzen duen forma eta bidea da. Gure kasuan, mezua informazioak eta euskarri bisualak osatzen dute, hau da, **elkarrizketekin** batera **eskena bat edo gehiagok** osatzen duten bideoak.

Mezu bat publiko hartzailerara iris dadin, eraginkorra izan behar du eta Hizkuntza bisualaren bost arauak bete:

- **UMEZU KODIFIKATU BAT:** Mezua hitz eta irudi bidez sortzen da. Beraz, publiko hartzailearen lengoaiari egokitu beharko zaio, hura zuzen antzeman eta jaso, ulertu eta asimilatuko duelarik.
- **MEZU ARGI BAT:** Iragarkiak argitasun eta eraginkortasunez informatu beharko du hartzailearen aldetik ahalik eta arreta handiena bereganatzeko. Elkarrizketek oroigarriak izan beharko dute, berberengandik jasotzen den mezua oroitzea ahalbidetzen duten esaldi labur eta errazekin.
- **KONBENTZITZEKO MODUKO MEZU BAT:** Iragarkiak 15. GJHaren baloreak agertu beharko ditu, basoen dibertsitatea, jasangarritasunaren garrantzia eta kontsumo arduratsua. Gutxienez gainerakoen gainetik gailenduko den ezaugarri bereizgarri bat aukeratu beharko duzue mezua publikora iritsiko dela ziurtatzeko. Balore hauek eskenan isladatzen den egoeraren bitartez, elkarrizketen bidez zein bideoan parte hartzen duten pertsonaien bitartez isladatuko dira.
- **GAINERAKOEN GAINETIK NABARMENDUKO DEN MEZU BAT:** Pertzepzio mailan publikoaren arreta bereganatzea ez ezik, ezinbestekoa da iragarkiak bere lehiatzaileen presentzia gaindi dezala. Horregarik, kartelak besteen gainetik nabarmendu behar du eta publiko hartzailearen jakinmina piztu.
- **MEZU GOGOANGARRI BAT:** Orokorrean, pertsonak ez dute inpultsiboki jokutzen. Horregatik garrantzitsua da mezua hartzailearen memorian gelditzea, berbera bere oroimenean geldituko delarik jarrera aldaketa bat lortu arte.



Mezuak berezko **komunikatzeko nahitasuna** dauka, bideoan isladatuko den istorioaren aukerakera erabakigarria da emititzen den mezuaren irakurketa egokia ziurtatzeko.

Gure **bideoaren** kasuan, egoerak transmititu nahi den hori isladatzen duela, pertsonaiak eta elkarrizketak hartu beharko dira kontuan. Eta helburua **ikuslearen arreta bereganatzea eta atxikitzea** denez gero, **ondorengo faktoreak ekidin** beharko dira komunikazio bisual on bat bermatzeko:

- **MONOTONIA BISUALA:** Aldaketa edo estimulu aldaketa faltak arreta galtzea eragiten du. Monotonia hau eskenaren monotoniatik, kontraste eta argi faltagatik, edo alderantziz, elementuen saturazioagatik gerta daiteke.
- **INTENTSITATE FALTA:** Intentsitatea arreta deitzeko beste faktore erabakigarri bat da. Irudiak komunikatzeko ahalmena dauka, esanahaia dauka eta igortzen den mezua osatu edo indartu dezake. Hori dela eta, mezu batek arreta dei dezan beste mezuengandik desberdindu behar da, oroigarriak izango diren elkarrizketekin eta tratatuko den gaia isladatuko duen istorio indartsu baten bidez.
- **KONTRASTE FALTA:** Bideoaren elementuen aukeraketa: eskena, pertsonaiek, ulergarritasuna oztopatu dezakete, berbera aspergarria suerta daitekeelarik nabarmena izan ezean. Horretarako, aukera ezazue igorri nahi duzuen mezua transmitituko duen eta indarra duen egoera eta istorio bat. Iragarkiak argia, bereizgarria eta oroigarria izan behar du.

**Remember that cannot be used images or songs
or whatever kind of content with copyrights for your video.**



Iragarki batean, aukeratutako hitz, kontzeptu eta irudiek **irudi sentsorialetan oinarritutako prozesu mental** bat eragiten dute, elkarrizketak eskena eta pertsonaiekin konektatzerakoan asoziazio eta lotura egokiekin, haien sinonimo grafiko eta audiobisual gisa mezua eraginkorra izateko berbera osatzen laguntzen dutenak.

Zure ikasleei lan-taldeak sortzeko eskatu, kanpainaren proposamena sortzerako orduan ondorengo eginkizunak banatu ahal izango dituztelarik:

- **AZPIMARRATU NAHI DEN 15. GJHko HELMUGAREN ANALISI ETA DESKRIBAPENA.**
15. GJHtik balioetsi nahi ditugun ezaugarri bereizgarri eta balioen definizioa.
Transmitituko den mezua, ezagutzera eman nahi diren datuak, kontsumitzaileak betetzen duen papera, etab. modu argian definitu.
- **MEZUAREN ERREDAKZIOA.**
Elkarrizketen definizioa, iradokitutako jardueren bitartez lortutako ondorioak kontuan hartuz.
- **FILMAZIO-SEKUENTZIAREN AUKERAKETA.**
Bideoa osatzen duten irudi grafikoen definizioa: Eskenaren kokalekua, dekorazioa, pertsonaiak, etab.
Egoera eta eskena argiak interesaren nukleoak dira, arretaren zentroa, mezuaren ulergarritasuna erraztuz.

Ikasgelako taldeek egindako iragarki guztien artean **ikasgela lehiaketa honetan ordezkatzuko duen kartela zein den erabaki** beharko duzue **guztion artean**. Irakasle bezala zu arduratuko zara kartela webguneko eremu pribatura igotzeaz.

Oroitu eremu pribatuan horretarako erraztutako espazioan **izenburu bat** eta mezuaren **deskribapen labur bat** gehitzeaz.